


Donostia Kulturaren ekimenak gero eta jarraitzaile gehiago du

Hala dio iazko balantzearekin prestatu duten memoriak

Donostia Kulturak hamaika ekimen antolatzen du urte osoan. Iaz prestaturikoak memoria batean bildu eta interesaturik direnen eskura jarri du. Ekimen horiek donostiarrengandik jaso duten harrerari buruzko datuak ere jaso ditu. Udaleko Kultura zinegotzi Ramon Etxezarretak eta Donostia Kulturako zuzendari Antton Azpitartek horren guztiaren berri eman zuten atzo.



Ramon Etxezarreta eta Antton Azpitarte, atzoko prentsurrekoan.

JAGOSA MANTEROLA

Amagoia Iban / Donostia

IAZ Donostia Kulturak antolatutako ekimenen aurreko urtean baino lagun gehiago bildu zituzten. Ramon Etxezarretak eta Antton Azpitartek jakinarazi zuten. «Balantzea egitekotan, urte urte gure eskaintzak finkatzen ari direla eta jendearen harrera horren arabera moldatzen ari dela esango nuke», esan zuten Donostia Kulturako zuzendariak.

Horrelako adierazpenek atzo aurkeztu zuten 1997ko ekitaldien memorian ageri diren datuak dituzte oinarri. Balantze ekonomikoak, esate baterako, 1.351,5 milioi pezetako aurrekontua izan zuen emaitza moduan. Emandako dirulaguntzek 21,5 milioi pezeta osatu zituzten. Liburutegiak mailaguz zerbitzuko 25.122 bazkide izatera heldu ziren.

Kultur ekintzarako zerbitzuen

adibide moduan, Egian kultur etxe berria ireki eta mota guztietako 170 ikastaro antolatu izana alpa daiteke. Arte eszenikoen eta musikaren arloan 463 emanaldi egin ziren guztira, eta ia 120.000 ikusle bildu. Zinema eta bideo arloko eskaintzetan, guztira 67.322 ikusle izan ziren. Erakusketetan, 20.000tik gora ikusle.

Horiek eta beste hamaika datu biltzen dira 1997ko oroit-idazki horretan, aurreko urteko balantze dosierretan ez bezala emanak. «Aldaketa ez da itxurarena bakarrik. Beste modu batean sailkatu ditugu datuak, eta sailkapen berri honek ez digu uzten aurreko urtekoekin alderatzerik, datuak beste irizpide batzuen arabera sailkatuak baitira», esan zuten Azpitartek.

Datuak, alderatzen zailak • Alderatzeko zaila izan arren, Etxezarretak hainbat datu erkatu zituen. «Aurreko urtekoarekin alderatuz,

San Telmon 20.000 bisitari gehiago jaso ziren iaz. Antzerkian ere 20.000 ikusle gehiago izan ziren. Liburutegiek 5.000 bazkide gehiago izan zituzten». Datuon irakurketa ere bestelakoa izan daitekeela gaineratu zuten: «Antzerkian izandako gorakadak ez dakigu zein neurritaraino ez duen zerikusia La Cubanaren *Cegada de amor* ikuskizunaren arrakasta itzelarekin. San Telmon inguruan piztutako polemikak ere piztuko zuten jendearen jakinmina...». Donostia Kulturako Azpitartek erantsi zuenez, Fantasia eta Beldurrezko Zinemaren Astea finkatu egin da.

Donostia Kulturak duen egoitza sareko edozein puntutan eskura daiteke iazko ekimenen datuen oroit-idazkia. Kide izan dituen erakundeei ere bidaliko omen zale. «Eta mezenas afizioa izan dezaketen enpresa eta pertsonari ere bai, babesle moduan ari daitezten lortu asmoz». X

laburrean

■ Garrick Ohlsson piano jolea ariko da gaur eta bihar BOSeKin, Alcantara gidari dela

BILBAO ORKESTRA SINFONIKOAK Garrick Ohlsson piano jole ospetsua gonbidatu du gaur eta biharko kontzertuetarako. Arratsaldeko 20:00etan izango dira emanaldiok, Ayala antzokian, eta Theo Alcantara maisuak zuzenduko ditu. Weillen *Kleine Dreigroschenmusik* suitea, Mozarten piano eta orkestrarako 9. Kontzertua mi bemol maiorrean KV 271 eta Bernsteinen *The Age of Anxiety* piano eta orkestrarako 2. sinfonia lanak eskainiko dituzte. X

■ Zezo Ribeiro brasildarra Getxo antzokian ariko da gaur, iluntzeko 20:30etan

MUSIKETAN zikloaren barruan, Zezo Ribeiro musikari brasildarra ariko da gaur, 20:30etatik aurrera, Getxo antzokian. Brasilgo herri musika modu arrakastatsuan interpretatzen du, eta gitarrek zein perkusioak nortasun berezia ematen diote haren lanari. Hasiera batean antolatzaileek The Cast bikotearen kontzertua iragarri bazuten ere, azkenean Ribeiro etorriko da. X

■ Angeles de Irisarrik eta Magdalena Lasalak 'Moras y cristianas' liburua plazaratu dute

ATZO aurkeztu zen Donostian Angeles de Irisarrik eta Magdalena Lasalak argitaratu berri duten liburua: *Moras y cristianas*. Emece Editores etxearen Narrativa Historica sailean plazaratu dute, hain zuzen ere. X. eta XI. mendeetako espainiar emakume mairu eta girstinoen eguneroko bizitzaren inguruko hainbat narrazio bildu dituzte bertan egile aragoiarrek. Horretarako, batek mairu baten rola hartu du, Magdalena Lasalak hain zuzen ere. Irisarrik, bestetik, girstino baten rola du liburuan. «Historiaren beste ikuspegi batera hurbildu nahi izan dugu», esan zuten atzoko aurkezpenean. X

■ Musika Arraroen Programatzaileen plataforma, Generalitatearen dirulaguntza politikaren aurka

MUSIKA ARRAROEN PROGRAMATZAILAEN plataforma (PMR) sortu berri da Katalunian. Haren helburua, «Generalitatearen dirulaguntza politika negargarria» salatzea gain, Kataluniako musika proposamen «ezberdin» guztiak biltzea da. Epe luzera, bere bazkideen interesak erakundeetan babestea eta gizartearen bultzatzea du helburu. «Ez da legezkoa guk iaz 250 milioi pezetan neurtutako musika lanak egitea, eta laguntzak 4 milioi eskasekoak besterik ez izatea». Generalitateak 1996an eta 1997an musikarako aurrekontuaren %90 musika klasikoa laguntzeko bideratu zuten. X

■ Udan, Viena dantza garaikidearen hiriburu

UZTAILAREN 2tik abuztuaren 31 bitartean, Austriako hiriburu izateaz gain, musika garaikidearena ere izanen da Viena. Besteak beste, Jiri Kylian, William Forsythe, Anne Teresa de Keersmaecker eta Josef Nadj dantzariak bilduko ditu, Im Puls-Tanz jaialdiaren 15. ekitaldian. Aurtengo egitarauan, antolatzaileek balet klasikoaren eta dantza garaikidearen arteko elkarketak aztertu nahi dituzte, eta europar dantzariak deitu dituzte batez ere, baina Lin Hwaimin taiwandarra ere gonbidatu dute. X

■ Oskorri Cantigas do Maio jaialdian bihar

GAUR hasiko da, Portugalgo Seixal herrian, Cantigas do Maio jaialdia, Xose Afonsoren omenez. Ekainaren 6a bitartean iraungo du festibal horretako egitarauak, eta, bere proposamenen artean, Oskorri bihar bertan gaueko 23:00etatik aurrera eskainiko duen kontzertua topa daiteke. Maria Kalaniemi eta Aldargaraz (Finlandia), Nass Marrackee (Marocco) eta Maria del Mar Bonet ere bertan ari-tu dira. X

IRAGARKI MERKEAK

(943) 300222

IRAGARKI MERKEAK

31 x 33 mm

66 x 33 mm
2 MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 5.550
Astea (6 egun): 4.360
2 aste (12 egun): 3.940
Hilabetea (24 egun): 2.770

31 x 33 mm
MODULO
(Iparralde)

Eguna: 85 l.
Astea (6 egun): 80 l.
2 aste (12 egun): 67 l.
Hilabetea (24 egun): 53 l.

31 x 33
MODULO
(Araba-Nafarroa)

Eguna: 2.075
Astea (6 egun): 1.700
2 aste (12 egun): 1.490
Hilabetea (24 egun): 1.075

31 x 33 mm

31 x 33
MODULO
(Edizio orokorra)

Eguna: 2.775
Astea (6 egun): 2.180
2 aste (12 egun): 1.970
Hilabetea (24 egun): 1.385

Titiriteroak

Antzerkia
Zirku tailerak
Ekintzak

907772347

Elkartasun brigadak



KUBA MEXIKO
GUATEMALA
NIKARAGUA

Bilbo 944790703 Gasteiz 945281193
Iruñea 948206055 Donostia 943340404

KOMITE INTERNAZIONALISTAK